

# Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

## Arratoi elbarriak oinez



AP PHOTO

ARRATOI PARAPLEGIKOAK berriro ere oinez ibiltzea lortu dute Lausano Eskola Politekniko Federaleko (Suitza) ikerlariak.

Gregoire Courtinek zuzendutako lantaldeak lortu du arratoi elbarriek mugikortasuna guttiz berreskuratzea. Hiru teknika aplikatu dituzte horretarako: batetik, arratoi molekulak koktel bat eman zieten; minutu batzuk geroago, estimulazio elektrikoa egin zieten bizkarrezurrean kokatutako elektrodo batzuen bidez; eta azkenik, errehabilitazio gogor batekin arratoiak oinez hasi ziren.

Ikerlarien abiapuntua 1932. urtean Nobel Saria irabazi zuen Charles Scott Sherrington-en lana izan da. Haren arabera, hezur-muineko lesioetan zirkuitua ez da hilda izaten, lotan baizik, eta egin behar dena zirkuitu horiek berriz aktibatzea da.

Proiektu honen aplikazioa gizakiarengan hemendik urtebetera edo bira egingo da. Horretarako, istripu baten ondorioz paraplegia duen gizon gazte bat aukeratu dute.



## Europa satelitekoaren antzeko giroaren bila Lurrean

ESPAZIOAN BIDAIAZTEN hasi aurretik astrobiologoak gai izango balira beste planeta edo satelite batzuetako ekosistemak emulatzeko, askoz ere aukera gehiago izango lukete arrakastaz burutzeko euren misioak.

Adibidez, jakin badakite Jupiterren satelitea den Europen sufrea eta sulfuroak daudela. Era berean, Kana-dako Borup fiordean glaziarrak sortzen dituzten urak hondakin sulfurosoak uzten ari dira glaziarraren gainean. Lur eremu horretan sufrea energi iturri duten mikrobio-komunitateak topatuz gero, oso posible litzateke Europa satelitean ere halako komunitateak edo antzekoak existitzea, eta ondorioz sufreak azpian ur-itsasoak izatea.

Ikerketa hori hastear dagoen bitartean, horretan arituko den zientzialari talde bera ur sulfurosoengatik ezaguna den Espainiako Río Tinto eremuan lehen azterketak egiten ari dira.



Río Tinto, Espainia.



## Bruxismoa ona omen da garunarentzat

Denok ezagutzen dugu inor, antsietateak eraginda ahoa indartsu ixten duena eta horren ondorioz hortzetako desgastea duena. Are gehiago, hainbat dentistak lo egiteko ahoan aparatu bereziak jartzeko aholkatzen dute. Orain EHUko ikerlari talde batek esan digu, bruxismoa hortzentzat txarra izanik ere, garunarentzat oso botika egokia dela. [ttiki.com/39140](http://ttiki.com/39140) (Euskaraz)

## Saguzarrek gizakientzat kaltegarriak diren bakterioak daramatzate

Gizakiongan gaixotasun larriak eragiten dituzten paramixobirusak marraskariengan eta saguzarengan bizi direla jakina bazen ere, animalien mota horietako birusen eboluzioa hobeto ulertzea ahalbidetu du ikerketa batek. [ttiki.com/39141](http://ttiki.com/39141) (Gaztelaniaz)

## Koltza hazteko erabiltzen den intsektizida bat, debekatzear

Cruiser OSR deituriko intsektizidari esker koltzak ongi defendatzen du bere burua erasoetatik, baina erleengan desorientazioa eragiten duenez, Frantziako Nekazaritza Ministerioa haren erabilera debekatzeko urratsak ematen ari da.

[ttiki.com/39142](http://ttiki.com/39142) (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

**iametza**

interaktiboa

[www.iametza.com](http://www.iametza.com)

T.943 37 67 16